

JOVELLANOSI GONBIDAPENA JOSE I.AREKIN ELKARLANEAN ARITZEKO

Testuaren sailkapena: aurrean daukagun testua formaz ...1.....bat da, non Sebastiani jeneralak gonbidatzen baitu Gaspar Melchor de Jovellanos Jose I.a erregearekin elkarlanean aritzera, horretarako honek ekarriko zituen onurak goraiatzeko ditu. Izaeraz,2..da, gai politikoaz diharduelako, eta3.....edo historikoa, idatzi zen bezala agertzen zaigulako. Bestalde, hasiera batean pribatua izan bazen ere, Gazetan agertu zenetik ...4.....bilakatu zen. Iturria, esan bezala5.....ren gehigarria dugu, 1809ko maiatzekoa.

Testuingurua: XVIII. mendearen erdialdetik aurrera zabaldu zen 6.....arrakasta handia izan zuen Europako herrialde gehienetako goi mailako gutxiengoaren artean. Baina Frantziaren Iraultza lehertu zenetik, ...7.....aurrera, jarrera aldatu egin zen eta herrialde horrekin prebentzioa hasieran, eta etsaigoa, gero, nagusitu egin ziren. Frantziaren kontrako herrialdeen artean8.....nagusienetakoa zela esan dezakegu. Aspaldiko etsaigoa zen, arrazoi politikoaz gain, ekonomikoak eta kolonialak tarteko ziren eta.....9....., 1799 geroztik, Frantziak Europako nagusigoa lortu zuen eta bere kontra eratutako koalizioari, non Britainia Handia zen bultzatzaile garrantzitsua, irabazteko bide bat kontinenteko inguraketa izan zen, hots, ingeles merkataritzari bideak itxi honen ekonomia itotzeko.

Espainian, bitartean, egoera ekonomikoak okerrera egin zuen gerren eraginez koloniekiko merkataritzak jaitsaldi handia izan zuen, Ogasunak honen ondorioak pairatu zituen eta nekazaritzarako ere urte oso txarrak izan ziren.

Urte horietan,10.....zen Espainiako errege 1788 geroztik, eta honen ministro nagusia11.....(1792tik). Despotismo Ilustratuaren ideiei jarraipena ematearen eta Iraultzak sortutako beldurraren artean mugitu ziren hasierako urteetan: Frantziari12.....(1793-95) eta honen bukaeran XVIII. mendeko adiskidetasun politikari berriz ekingo diote. Horrela, bi herrialdeek 1807an13.....sinatuko dute, zeinen bidez frantziar ejertzitoari14.....joateko bide librea utziko zaio, Britainia Handiaren kontrako inguraketa kanpainaren barnean.

Frantziako ejertzittoa Penintsulan sartu ahala, eta Portugalera joatearekin batera, bertako lurraldeak ere okupatzen joan zen. Bitartean,15..... Aranjuezen izandako asalduraren ondorioz Karlos IV.ak Godoy kargugabetu eta abdikatu zuen16.....semearengan, baina egindakoarekin oso konforme gelditu ez eta17.....jo zuen laguntza eske. Honek hauek biak eta familia osoa Baionara deitu zituen eta han,18.....gertatu ondoren, Espainiako koroa Napoleonen esku gelditu zen, zeinek bere anaia 19.....pasa zion Baionako Konstituzioarekin gobernatu ahal izateko.

Bien bitartean, 1808ko maiatzaren hasiera geroztik gerra (.....20.....) zabaldu zen espainiar bazter guztietan. Bertako gizartea bitan banatu zen: alde batetik21.....governua onartzen zuten gutxiengoa eta bestetik onartzen ez zutenen gehiengo heterogeneoa (noblezia, kleroa, burgesia, herria,22.....aldekoak zein kontrakoak zirenak). Hiri gehienetan, Jose I.aren governua onartu ez eta botere hutsuneari aurre egiteko,23.....eratu

ziren. Batzar hauek koordinatzeko24.....eratu zen 1808an (IX) bertan.

Testua: Ingurumari honetan kokatzen da gure testua: Jose I.ak arazo handiak ditu25.....governatzeko. Bere inguruan pertsonaia ospetsuak eta erreformatzaile nabarmenak biltzen saiatuko da gobernuari sinesgarritasuna eman ahal izateko. Horietako bat Jovellanos izan daiteke, “ospe ona” duen pertsona,”ideia liberal”ekoa, ilustratua eta oso ezaguna
26.....n proposatutako aldaketen ondorioz. Beregan, beraz, zuzentzen da Sebastiani jenerala, Jose I.aren hurbileko pertsona, argudio desberdinak aurkeztuz Jovellanosen laguntza eskuratzeko, hau da, Jose I.aren gobernuan parte hartzeko.

Horrela, “....27.....” aipatzen dio, hau da, Independentzia gerra, eta bertan Jovellanosek hartu duen alderdia, frantsesen kontrakoa, hain zuzen. Hau atzerakoitzat jotzen du, bertan Eliza (“.....28.....”) eta “handiki” bai Espainiakoak bai Ingalaterrakoak daudenez, beren interesen aldeko bihurtu dutela gerra argudiatu egiten dio. Ingelesen laguntza interesatuari buruz pixka bat aurreraxeago hauxe dio: “ahultzea”, “merkataritza zapaltzea” eta “.....29.....” bilakatzea. Honekin esan nahi du ingelesak espainiarren aliatuak direla Frantzia hondoratzeagatik, baina beren benetako helburua Espainiak30.....duen merkataritza zapaltzea eta eskuratzeko delat, horretarako Cadizko portuaz jabetuko litzateke Ingalaterra mende bat lehenago Gibraltarrez jabetu zen bezala.

Jose I.ari lagunduz gero, aldiz, “Espainiak ondorio onak” lortuko litzuzke: gobernu era egokia, hau da, monarkia (“errege justu eta ikasi”, Jose I.arena)31.....(“Enperadoreak (Napoleonek) emandako” Baionako Konstituzioa), non Espainiaren “birsortzeko...oztopoak” diren Elizaren lehentasuna edo Lege Zaharrak baztertuak izan baitira. “Egin beza... gurekin batera” Espainiarako zoriona nahi badu, Jovellanosek argi ikusi behar du hori frantsesek ezarri nahi duten gobernuari lagunduz lortuko dela.

Bukaera: Jovellanosek, dena den, uko egin zion dei honi eta frantsesen inposizioaren kontra aritu zen.32.....kide izan zen eta Cadizko33.....eraketan parte hartu: bertan Jovellanisten taldea sortu zen. 1811an hil zen.

Ondorengo kontzeptuak testuko hutsuneetan kokatu:

a--lehen mailakoa--b-Ameriketako koloniek--c-Fontainebleauko Ituna--d-Portugalera---e- publikoa--f-Batzar Gorena--g-Batzar Gorenako--h-Manuel Godoy--i-borroka--j-abdikazioak--k-Ilustrazioak--l-Cadiz Gibraltar berri--m-1789tik--n-Independentziakoa--ñ-Napoleonekin--o-Inkiszioa--p-Fernando---q-Britainia Handia--r-konstituzionala--s-batzarrak--t-Espainian--u-Karlos IV.a--v-gerra deklaratu--w-frantsesen--x-1808ko martxoan--y-Erregimen Zaharraren--z-“Informe sobre la Ley Agraria”--- aa-gutun--bb-Gobernuko Gazeta--cc- Napoleonengana----dd-politiko--ee-Jose I.ari